



## Hotza eta festa giroa nagusi, Gabonetako Azoka Berezian

**TOLOSA ▶** Atzo egin zen XV. edizioan, arrakasta gehien jatekoek izan zuten postuetan

**IRABAZLEA ▶** Josu Deba ormaiztegiarrak irabazi du XIV. Odolki Lehiaketa ▶ 4

**VILLABONA ▶**

**Presoen aldeko lehen Topagunea abian da**

Ideologia ezberdineko 70 lagun bildu ziren atzo ▶ 5

**TOLOSA ▶**

**Galtzaundik egoitza erakutsi du**

Festa berezia egin zuten herenegun ▶ 5

**ETZI EZ DA HITZARIK IZANGO**

Bihar Eguberri Eguna denez, etzi ez da HITZARIK argitaratuko, prentsan ohi den moduan jai egun bat hartuko dutelako langileek. Asteazkenean berriro zuekin izango gara. Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi.



Goian eta behean eskubian, azokako une desberdinak. Behean, ezkerrean Odolki Lehiaketako sari banaketa. NEREA URBIZU

**ZAS**  
soinu  
ikastaroa  
Informatika musikala  
(Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio  
profesionala.  
P.A. eta monitoriak  
Eta aber  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)

[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)  
**SM Saldías Miguel**  
ASEGURUAK  
• Tolosa 943 65 11 89  
• Beasain 943 08 56 00  
• Orain Anoetan  
943 69 80 04  
**Kotxe, motor  
eta furgonetak  
-% 60**  
Etxebizitza, komunitateak, komertzioak, enpresak,...

**NESTOR ARDANAZ**  
6 5 11 00 01  
Oria kalea 4

TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO ▶Oparietan  
zenbat diru  
gastatuko duzu  
Gabonetan?

Gero eta gutxiago gastatu nahi dut, baina ez da errega; prezioak gora doaz, eta gero eta gauza gehio eros daitezke... 25 eurokin detalle politak daude erosteko.

-&gt;

Nik nahiago norbaiti merezi duenean oparitu, ta ez inposatzen dutelako. Aurten, ilobari detailleko bat ta lixto.

-&gt;

## UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## Oles egiteko aroa



**O**rantzaroa jartzeko eguna da. Orantzaroa edo Olentzeroa, nahi duzuen bezala, Leitza Orantzaroa esaten da. Balkoietan eta etxe atarrietan erakusgai jartzeko gonbita luzatzen dute herrian. Badira egun batzuk eskaera egina dela. Gaur atera dituzte jendaurrera etxean egindako Orantzarook. Zein baino zein dotoreagoak eta kuriosoagoak.

Herritarrek pozik. Antolatzaileak zer

esanik ez. Olentzero lehiaketa antolatzen baita herrian gaurko egunez, Gabon Gaueko goiza etxez etxe eta atariz atari ematen dute Aurrera Elkarteko kide batzuk. Irudirik onena saritu behar dute, ez da erraza ordea gero eta irudimen landuagoa erakusten baitute leitzarrek: taloa egiten ari den ikazkina, baratza lanzen ari dena, zakua bizkarrean daraman begi gorria, baserriko tximinitik zintzilik dagoena edota balkoiko burnien atzean dagoena pipa hortzian duela.

Horiek panpinezko Orantzarook baina gaur arratsaldean, Euskal Herriko bazter guztietan hezur haragizkoak aterako dira kalera. Hala ere balkoi, tximini, atari, ezka-

ratze eta kalean bizirik ikusiko ditugun Orantzarook guztien artean misteriotsuena, gauean etorriko dena. Hutsik egin gabe, etxe guztiak bisitatuko dituena, umeen ilusioa zapuztuko ez duena.

Laburra litzateke ordea, Olentzeroren bidea, opariekin bakarrik geratuko bagina. Atzera begira jartzea onena horrelakoetan. Tradizioak azkar erakutsiko baitugu Olentzeroa menditik herrira jeitsi zen ikazkina baino ez dela. Esku hutsik bazetorren ere, beste zerbait oparitu zigun, alaitasunerako eta algararako garaia. Oles egiteko aroa zen Orantzarook ekarritakoa. Ospa dezagun ba bildurrik gabe! Ongi pasa itzazuela Gabonak.

## ARGAZKI ZAHARRA ▶



## 'Hator hator mutil etxera, gaztaina ximelak jatera, Gabon gaua ospatuzeko...'

**Erredakzioa** ▶ Gabon-gaua. Horixe ospatuko dugu gaur. Hala, egun osoan zehar ohiko doinuak izango dira entzungai, talde desberdinetan banaturik, baserri baserri nahiz etxez etxe ibiliko baitira asko, baserriar jantzia soinean dutela. *Horra Mari Domingi, Abenduako hilaren 24ean, Gaueko izar, Olentzero begi gorri, Haur eder baten bila* izango dira, besteak beste, entzungo direnak. Ezkerreko argazkia 1930. urtekoa

da. Haurrak baserriarrez jantzita, euren jaiotzarekin daude. Atzealdean ikusten diren etxeak San Frantziskoko txaletak eta Laskurain kaleko Ifurrategi etxea dira. Eskuineko irudian, berriz, bi mutiko ditugu; Eguberriak zirela baliatuz, baserriar jantzia soinean, apain-apain ageri dira argazkia ateratzeko prest. Horrelako argazki politak ere izango dira gaurkoan. KUTXA GIZARTE EKINTZA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRITZIA ▶ UR ALGUERO (GIZARTE HEZITZAILEA)

## Gabonak eta kontsumoa

**G**aur gauean Olentzerok opari ugari banatuko ditu Euskal Herriko haurren artean. Urtero bezala, famili ugari elkarrekin ospatuko dituzte Gabonak, teoriarik behintzat bakeminez eta maitasunez beteriko data hauek. Eta urtero bezala famili asko eta asko nekez iritsiko dira hilabete amaierara. Eguberriak ospakizun garaia dira, kutsu erlijiosoarekin batzuentzat, beste batzuentzat senideekin batzeko urteko sasoiak besterik ez.

Baina Gabonak batez ere kontsumoaren garaia dira, gaur egungo erlijio ez ofizialaren ospakizun nagusietako bat, nahiz eta bakarra ez izan. Hori dela eta, gai honen inguruan hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke. Gaur egungo Euskal Herriko jendartea (eta Europa eta munduko ere) sistema kapitalistaren barnean eta honen interesen arabera moldaturik dago. Kontsumoa da, hain zuzen, sistema honen pilare nagusietako bat.

Gizarte honetan inor izatera iristeko eduki egin behar da, kontsumitzeko behar adinako ahalmenik ez duen pertsona gizartetik at geratzen da, paria bihurtzen da. Eta kontsumoa aldi bere-

an sistemaren martxa eta funtzionamendu egokia bermatzeko tresna garrantzitsua da. Mekanismo sinple bezain gordina da: lehen urratsa pertsonengan behar berriak sortzea da beraien denbora eta baliabideak kontsumora bidera ditzaten. Ondorioa bi-koitza da, jendea nekez mantentzeko bizi maila bat eramaten saiatzen da eta bere mendekotasun maila hazi egiten da. Hipoteka geroz eta handiagoak, urte askotarako maileguak etxea eta autoa ordaintzeko... Beste aldetik biziraun ahal izateko pertsonari lan egitera behartzen zaio, zorren mamua bizkarrean izanda zaila da greba eskubidea erabiltzea lan baldintza hobea bartzatuz lortzeko edota gustukoa ez den lana uztea beste bat bilatzeko.

Eta... errezetaren beste alde, jendea-ri nahigabe horretatik ihes egin dezan errezeta magikoa eskaintzen zaio: kontsumoa. Goibel zaudela? Eros ezazu zure arazo guztiak konponduko dizkizun X markako X produktua. Arazoak dituzula? Mehetzeko X produktua erabiltu dotoreago egongo zara eta mundu guztiak maitatuko zaitu. Egunero, komunikabide eta publizitate kanpaina

intentsibo bezain eraginkor baten bidez komunikabideek kontsumoa arrakasta eta zorientasunarekin identifikatzen dituzte. Dirua gastatzea da zorientatu izateko errezeta.

Noski, denok nabaritzen dugu argudio honen faltsutasuna denok badakigu dirua-zorientasuna ekuazioa faltsua dela. Eta, hala ere, gehiago edo gutxiago denak erortzen gara kontsumoaren gupil zoroan.

Honen gainean hausnarketa hau egiten dut beraz, lehenik egun indarrean dagoen kontsumo ereduaz ez da bideragarria. Pertsonari kalte egiten dio, ingurugiroari kalte egiten dio, mundu okerrago batetara garamatza. Gaur egungo kontsumo eredu bideragarri izateko pobrezia areagotzen da hirugarren mundua, gurean berriz klase ertainari geroz eta gehiago estutzen zaio lepoari lotu dioten katea. Gizarte eredu hau aberastasunen banaketa injustuan oinarritzen da, eta horretarako, irabaziak pilatu ahal izateko, ez daukanari kendu beharra zaio baduenak gehiago edukitzeko.

Honen aurrean honakoa proposatu nahi nuke: kontsumitu behar denaren

gainean gogoeta egitea, beharrezkoa dena erostea. Kontsumitzerako garaian produktuaren jatorria kontuan izatea, zein enpresak egin dituen, ingurugiroa errespetatzen duen produktua den edo ez. Oinarritzeko eskubideak errespetatzen ez diren tokiren batean eginikoa ote den. Enpresaren jabea edo zuk egindako gastuaren onuraduna nor den, hau da, kontsumitzerakoan nori ematen diozun zuk dirua. Beste ideia bat prezioa dirutan jarri beharrean orduka jartzea da, eguneroko erosketak X lan ordu, X markako galtzak hainbeste lan ordu... Eta gero buruari eragitea, merezi ote du nire bizitzako ordu hauek hau erosteko erabiltzea?

Finean, kontsumitzea ez da aukeratu dezakegun zerbait, beti kontsumituko dugu zerbait, baina gure esku dago nola kontsumitzen dugun erabakitzea. Eguberri hauetan kalitatean, ingurugiroan, duintasunean eta askatasunean kontsumitu dezakegu balio hauek sustatzen dituen kontsumo arduratsua burutuz edo besterik gabe proposatzen diguten bidetik jarraitu dezakegu, gehiegizko kontsumoaren gupil zoroan sartuz.

Kontsumitu esklaboago izateko, mundua dena baino okerragoa izateko, boteretsuari bere boterea bermatzeko bitartekoak ziurtatzeko.

GUTUN@K ▶

## Asko egin dezakegu

Bazen behin, basamortuan, herrixka galdu bat. Bere garaian, baso oparoak zituen inguruan baita ur garden ugari eramaten zuen erreka ere, baina lehor agertzen zen azken urteetan. Euria, egin zuen tartean-tartean, baina beharrezko neurririk gabe; laster ezkututzen zen lur igortuan barrena. Izan ere, herriko agintariek zeregin nahikoa bazuten, hamarkadetan zehar inguruko basoak xehatuz ateratako diruaz festarik festa kupela ondo betetzen. Herritarak etsita zeuden, beraien baritzeetako exkasiari begira, ur faltan, eta agintariaren ajolagabekeriaren aurrean.

Baina herritar talde bati bururatu zitzaion irtenbidea: garai hobeak etorri bitartean, egiten zituen tanta apurrei eusteko, orma bat eraikitzea erabaki zuten errekan ura pilatzeko. Hasi ziren lanean, baina jende nahikorik ez zirela konturatu ziren, eta herrian ondorengo meza zabaldu zuten: «Ura igaro eta gero alperrik da orma eraikitzea».

Geure Euskal Herrian ere, antzera gertatzen zaigu, agintariek egingo dutenaren zain bagauda, Euskal Herri-tarron erabaki ahalmena eta lurralde-

tasuna lehor geldituko dira. Inoiz baino gehiago, lanerako garaiak dira, arlo guztietan, eta ez batez ere kalean. Euskal Herri libre eta sozialista baterantz, benetako egoera demokratikoa lortzeko asko egin dezakegu bakoitzak. Eta geure baratza asetzeko ur garden dugunean, geuk erabakitako barazkiak landatuko ditugu lur oparoan. Euskal Herri independente eta sozialistan ez ditugu azak bakarrik izango jateko.

HAIMAR ALTUNA IJURKO ETA ANDONI  
OTEGI ERASO (EUSKAL PRESO  
POLITIKOAK) ▶ LIZARTZA ETA IBARRA

## Goian bego Olentzero, gure ikazkin zaharra

Gabonak hurbiltzen diren heinean hasten zaizkigu agertzen data hauetan gaudela adierazten diguten elementuak: bonbilla koloretsuak, Santa Claus-en filmak, iragarkien bonbardeoak, futbolistak opariak ematen ospitaleetan edo Olentzero txukun eta eder bat EITB iragaritzen. Azken honek gonbidatu nau idatzu hau burutzera.

Olentzeroren mito zahar bezain aberatsak azken urteetan eman duen eraldaketa, hala izaera aldetik nola estetikoki, hitz batzuk merezi ditu. Duela

50 urte atera zuten lehen aldiz Iruñeko karrketan, bere *muga naturalak* gaindituz. Horrez geroztik, Euskal Herri guztira esdatu da, batik bat, ikastolen eskutik. Era berean, identitate-mutazio ukaezin eta azpimarragarri bat jasan du, hain-



bat Olentzero eredu ezberdin ikus ditzakegularik eguneroko gure gizartean.

Azken urteotan pairatu duen transformazioak, ikuspegi kritiko batetik begiratura, hausnarketa merezi duela uste dut. Hasteko, galdera batzuk lutzatuko nituzke: zer gertatu da bere jatorrizko itxurarekin? Non dira bere begi gorriak, igitia, legatza, botilardoa, arraultzatxoak,

ikazkin aurpegi belztua eta hortzian zuen pipa? Zergatik erantzi dugu duela gutxi arte zuen autentizitate horretatik? Badirudi bere jatorrizko ezau-garriak (edalea eta arlote itxurakoa) ez direla politikoki zuzenak eta haurrei erakusteko eredu-garria. Hori gutxi balitz, orain neskalaguna bilatu diote. Duela urte gutxi, lagun bat etorri zitzaidan ea bere bikotearena azalduko nion. Hura asmakizun berri bat zela esan nion, ez duela zerikusirik gure tradizioarekin. Mari Domingi du izena. Atera berri den ipuin batean biak elkarriz egertzen dira, benetako bikote ideala dirudite. Edernezuriren antza hartu nion. Hori al da haurrei saldu nahi diegun eredu?

Urte gutxiren buruan bizarra ere kenduko diogu (itxuroso-goa izan dadin) eta Olentzero metrosexual eta abstemio batean bihurtuko dugu, neurri perfektuak izango dituen Mari Domingi neskalagunarekin batera (Barby eta Kent?). Nola ez, Mungian eraiki zaien ametszko baserri idilikoan biziko dira zorientatu. Bikote perfektua.

Hori gutxi balitz, XX. mendeko 70. hamarkadatik aurrera beste figura batzuk ordezkatu eta opariak banatzen hasi zen. Gaur erakusleho eta eremu zabaleko komertzio-gure guztiak

inbaditu ditu, kontsumorako deia zabalduz. 1931ean Coca-Cola asmatu zuen Santa Claus komertzial hura ordezkatu dugu Olentzero nazional batekin. Sustituzio bat izan da. Bizarzurri figura yankiaren inbasioa eta kolonizazioa ekiditearren geure opariemale propioa asmatu dugu. Hura bezain txukun, sinpatiko eta ponposoa. Baina, interes mekantilistaz dirua zahutzea gonbidatzen gaituen euskal Papa Noel hau al da benetan gura duguna?

Nire ustez, objektua bera jarri da sinbolo eta esanahiaren gainetik eta horretan gure tradizioa, gure mitologia, oro har, gure kultura atera da galtzen. Jakina da, usadio guztiak jasaten dute bilakaera natural bat (jasan behar dute, desagertzetik nahi ez badugu), baina hori helburu (irakur ekonomiko) eta interes konkretu batzuei begira egiten bada sinboloa edota esanahia bera galduko da.

Non gelditu da menditik jais-tzen zen ikazkin mozortu hura? Gure mitologian urtearen amaiera iragartzen zuen basajaun hura hiltzen utzi behar al dugu? Amerikarrek egin zuten bezala, kultura-sinbolo bat akabatzen ari gara, eguberrietarako merkatal-modak bat sortzeko. Goian Bego gure Olentzero zaharra.

FERNANDO ROJO ▶ TOLOSA

EKONOMIA ▶

# Gabonetako Azoka Berezian arrakastatsuenak, jatekoak

## 15 partaideren artean Josu Deba izan da XIV. Odolki Lehiaketako irabazlea

NEREA URBIZU

Gabonetako Azoka Berezian urteroko produktuak ikusi ahal izan ziren. San Frantzisko etorbidea, Triangulo, Zerkausia eta udaletxe plaza jendez eta postuz beteta izan zen atzokoa. Dena dela, iaz jende gehiago ibili zela zioen jendeak.

San Frantzisko kalean jakiez gain, pitxiak eta egurrezko gauzak jarri zituzten salgai. Urteroko Lazkaoko taloen postuak arrakasta izan zuen baita ere; hotzari aurre egiteko moduetako bat hori izan baitzen, sukaldako suaren beroa aprobetxatu eta jaki beroak janz.

Triangulo plazan betiko postuez gain, jostailuak eta musika tresnak ere baziren, baita TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN produktuak ere.

Udaletxe plazan animaliak izan ziren, eta iaz bezala oreinek jaso zituzten begirada gehienak: adarrik gabeak, baina ikusgarriak. Ondoa euskal txerrama batek bere kumetxoei titia ematen aritu zen. Askok ere dastatu zuten bi animalia hauen haragi eta produktuak.

Gozoetako postu asko izan ziren, eta atzokoa errege izan ziren. Dena dela, aldi berean eskularru eta zapelek arrakasta izan zuten baita ere, hotz handia egiten baitzuten.

Eguna alaitzeko txalapartariak zuzenean aritu ziren, eta baita txarangak ere. Aldi berean, EHNA erabiltzeko informazioa banatzen izan zen lagun talde bat Triangulon.

### XIV. Odolki Lehiaketa

XIV. Odolki Lehiaketan 15 harategik hartu zuten parte, eta bi sari banatu zituzten. Lehenengo saria Josu Debarentzat izan

zen eta bigarrena, aldiz, Beasaingo Xixio Mujikarentzat. Epaile lanetan Martin Urkiola, Jose Inazio Mendinueta, Pasqual Urdanpilleta, Manuel Sanchez, Karme Iraola, Joakin Urio Velazquez eta Matias Gorrotxategi izan ziren. Ez zuten «lan erraza izan», gaineratu zuten epaileek, «oso maila altua egon baita aurten ere».

Josu Deba irabazleak ez du lehen saria atzo jasotakoa, duela bi urte ere irabazi egin baitzuen. Iaz, berriz hirugarren geratu zen. Aurten, Zumarraga eta Ordizian ere jaso ditu sariak. Ormaiztegiarrak esan zuenez, «Berrizko haragia erabiltzen dugu», eta «sekretua ez dakit zein den, baina onak daukela diote probatzen dutenek».

Orioko Kepa Loidi lehengo urteko irabazleak 100 kilo odolki ekarri zituen Tolosara, jendeak dasta zitzan. Jende asko hurbildu zen hura probatzera. Hurrengo urtean ere irabazleak beste 100 kilo inguru prestatu beharko ditu Azoka Berezira ekartzeko.



Gozo postuetako bat San Frantzisko etorbidean. N. URBIZU



Herritarrak berrikumeei begira atzoko azokan. N. URBIZU



Josu Deba ormaiztegiarrak aurtengo Odolki Lehiaketako saria jasotzen. N. URBIZU

AZOKA ▶

## Eskaintza eta jendetza, biak atzoko azokan protagonista

Barazki kopuru handiarekin batera gozoen zerrenda areagotu egin da

PABLO ALBERDI

Atzoko Azoka Berezia oso giro onean igaro zen. Goizeko lehenengo orduan ez zegoen jende asko kalean, egundoko hotza zela eta, baina eguzkia gora zihola, jendea kaleara ateratu zen, eta eguerdi aldera «jendetza» ibili zen postuen artean.

Eskaintza ere aipatzekoa izan zen. Barazki kopuru izugarria, fruta, ehiza, gaztak, ogia eta postreak, txerrikiak, oreinkiak, kontserbak, bai begetalak baita itsasokoak ere, altzariak eta jostailuak, pitxiak, xestoak, edo eta gabonetako apaingarri asko besteen artean.

Aipatzekoa ere Berdura plazan ikusitako zerrenda. Apaingarriko landareen postuetan pazko loreak nagusi, eta baratzarako landareen postuetan, berriz, egundoko zerrenda.

AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Xarbotia	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Gerbera	12,00	-

<b>Bertako produktuak</b>		
Intxaurra	3,00	4,00
Lekak	2,50	3,50
Gardua	3,00	-
Ogi biologikoa	2,53	-
Ardi-gazta	14,00	18,00

<b>Gaia</b>		
<b>Produktu ekologikoa</b>		
Arrautzak	3,50	-
Marmelada	3,00	3,60
Sagarra	2,00	3,00

■ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Zeuk idatzi.** Webguneko atal honetan irakurleek herrietako albiste nahiz informazioa eman dezakete. Horretarako kazetariok telefono zenbaki bat, edo e-mail helbide bat beharko dugu, albisteak garatu ahal izateko.



**Zorionak!**

Kale berria, 36 behea Villabona  
Tel.: 943 69 37 84  
papertxulo@hotmail.com

- Opari artikuluak
- Peper-gauzak
- Planoen kopiak
- Liburuak



**Gosariak eta musika ona**

Arostegieta • 943 675 119 • TOLOSA

VILLABONA ▶ POLITIKA

# Herriko presoen eskubideen aldeko Topagunea abian da

Ibaetako Manifestuaren bidez, arlo ezberdinetako eragileek presoen aldeko eskubideak bermatzea eskatu dute



Villabonako presoen eskubideen aldeko Topagunearen parte-hartzaileen familia argazkia. M. SOROA

MADDI SOROA

Euskal presoen eta bereziki Villabonako Pello Zelarain, Iñigo Guridi, Emilio Salaberria eta Oscar Zelarain presoen eskubideen alde urrats «garrantzitsuak» eman zen atzo eguerdian Villabonako eliz ondoko parkean. Herri mailako eragile kultural, sindikal, politiko eta sozialek bat egin baitzuten topagunearen bitartez, «askatasunik gabe dauden billabonatarrek dituzten oinarriko eskubideak aldarrikatzeko».

Bertan izan ziren, besteak beste, Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea, Eduardo La Borde zinegotzia, Joxean Larrañaga Villabonako apaiza, Oinkari dantza taldeko partaideak, herriko kultur elkarte ezberdinetako kideak eta baita presoen eskubideen aldarrikapena bultzatzeko hainbat lagun ere.

Ideologia ezberdinak izanik, guztira 70 lagun inguru bildu ziren «Villabonako presoen eskubideen alde lan egiteko konpromisoa hartzeko». Ondoren,

Ibaetako Manifestuak batzen dituen oinarriko eskubideak zitatu zituzten modu garatu batean, hala nola, tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea, eta baita osasun, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza, amatasun nahiz aitatasun eta askatasunerako eskubidea ere.

Amaitu aurretik, «Iñaki de Juana euskal presoaren egoerak eragiten duen kezka» azpimarratu zuten Topagunean «haren berehalako askatasuna» eskatuz.

IBARRA ▶ POLITIKA



## Autodeterminazioa aldarri

M. Soroa ▶ Ibarra ezker abertzaleak hainbat ekitaldi antolatu ditu aste honetan *Euskal Herriak Autodeterminazioa* lelopean. Atzo, ekitaldi horiekin amaitzeko bizikleta martxa egin zuten goizean, herrian zehar. Arratsaldean, berriz, 19:00etan elkartu ziren 50 lagun inguru plazan manifestazioa burutzeko. M. SOROA

TOLOSA ▶ KULTURA



## Galtzaundi galtzak berrituta

Erredakzioa ▶ Urriaren lehen astean Galtzundik *galtza berriak* estreinatu zituen berritze lanen ondorioz. Hori ospatzeko festa txiki bat egin zuten herenegun egoitza berrituan. Bertan izandakoez atzera begirako hausnarketa egiteaz gain, aurrera jarraitzeko eta lanerako gogoia azaldu zuten. M. SOROA

Beti jakin izan dut zer nahi dudan, etapa berri honetan nire bidelaguna Euskadiko Kutxa izango da. Talde bikain bat helmuga bakar batekin: **etorkizuna hobeto prestatzea.**

**Joane Somarribaren Plana**

Aurreikuspen Pentsio Planak

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA Zurekin elkartanean

Irakasle, entrenatzaile eta monitoreentzat

## KIROL MATERIALA EUSKARAZ

atletismoa  
futbola  
acuagym  
beroketa  
eskubaloia  
rugbia  
saskibaloia  
gimnasia  
eritritnikoa  
gimnasioko zirkimooa  
igeriketa  
judoa  
karatea  
patinajea  
kirol egokitua  
tenisa ...

6 € fitxa bakoitza

20% deskontua bilduma osoarengatik

Anoetako Kirol Etxean  
Tel. 943 458 357

Arrasateko Musakola  
Kiroldegian  
Tel. 943 771 677

Debarroko Euskara eta kirol zerbitzuek argitaratuta [www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz)

TOLOSA ▶ GIZARTEA

# Laskorain Ikastolaren urteroko Merkatu Txikia etzi hasiko da

'Eutsi elkartasunari' lelopean hamaikagarren urtez egingo dute; urtarrilaren 7ra arte bildutako diruarekin saharararrak eta ekuadortarrak lagunduko dituzte

ENERITZ MAIZ

Hamaikagarren urtez, *Eutsi elkartasunari* lelopean, Laskorain Ikastolako hezkuntza komunitateak, Merkatu Txikia antolatu du hilaren 26tik urtarrilaren 7ra arte. Tolosako Kultur etxean egongo dira 11:00etatik 13:00era eta 17:00etatik, 20:00etara eta bertan, edonork parte har dezake berarentzat baliagarriak ez zaizkion gauzak eskainiaz.

«Gure inguruko eta kanpoko giza beharrez jabetuta», kontzientzia zabaldu eta neurri batean ekonomikoki laguntzeko asmoz, han eta hemen bildutako jantziak, tresnak, altzariak... Merkatu Txikian salgai jartzeko ohitura dute Laskorain Ikastolakoek.

Gelaz gela ikasleekin landutako unitate didaktikoaren ekimenetako bat da hau. Aurten bereziki, euren ikasleekin «baliok, jarrerak eta portaerak poliki-poliki hobera aldatzeko asmoz» balio hauek landuko dituzte: errespetu gauzei, pertsoneri eta ideiei; norbanakoaren eta gizartearen giza esku-bideak kontuan hartzea; gatazkak era baketsuan konpontzeko elkarrizketa bultzatzea; esku-hartzea ez ezik, gizarte justuago, berdinago eta solidarioagoa eraikitze elkarren arteko ardura eta konpromisoa bultzatzea. Kontsumo ardurasua bultzatzea, erosten dugu-



Emakume bat Merkatu Txikiko postu batean produktuak begiratzen, arxiboko irudian. IRATXE ETXEBESTE

na berrerabiltzea eta azkenik berziklatzeko ohiturak sendotzea.

## Bi proiekturi laguntza

Aurtengoan bereziki bi proiektu bultzatu nahi dituzte Laskorain Ikastolatik. Alde batetik, Ane Illunbe eta Izaskun Azurmendi, ikastolako bi ikasle ohiek, eta Ibarratik Misio Taldeak egindako proposamena dago. Ekuadorko Los Rios probintzian Euskal Herriko misioak aurrera eramaten ari diren proiektu integrala bultzatzea. Baba izeneko kantoiko bizi ka-

litatea hobetzea du helburu eta baita, osasuna, hazkuntza eta etxebizitza bezalakoak ere. Bestetik, Saharako Aaiun Wilayan aisialdirako zentro bat

irekitzeko proiektua dago. Haur eta gazteen beharrei erantzunez eta euren indarra eta energia ekintza eraikitzaileetara bideratuz. Zentro hau

gazte talde batez kudeatua egongo da eta bertan, informatika eta internet erabili ahal izateko aretoa, liburutegia, haur parkea, futbol zelai eta igerileku txiki bana, eta abar eraikitzen ari dira.

Beste urteetan, diru laguntza Emaus erakundeari eman izan diote, baina aurten bi proiektu horiei laguntzeko erabiliko dute. Hala ere, Merkatu Txikian soberan gelditzen den guztia, beraiengana bideratuko dute. Honez gain, aurreko urteetan bezala, aurten ere, Emaus erakundearen parte-hartzeari esker, armairuak, sofak eta bestelako altzariak biltzeko aukera ere eskaintzen dute.

Hau guztiaz gain, aurreko urteetan bezala, elikagaien bilketa egingo dute. Beraz, atuna, dilistak, arroza, azukrea eta konpresak biltzen ariko dira.

Asmo guzti hauek aurrera eramateko, kanpoko lau taldeon laguntza izan dute: Emaus erakundea eta Tolosaldea Sahararekin Gobernu Kanpoko Erakundea eta Tolosako Udaren Gizarte Zerbitzua eta Ibarratik Misio Taldea.

Laskorain Ikastolako hezkuntza komunitatea osatzen dutenek ongi aski dakite, «eguneroko bizimoduan gauza txiki eta gertukoetan aldatu behar dugula gure jarrera eta jokabidean», ez dagoelako beraien esku mundu osoko aldaketa sakonak bultzatzea.

AMASA ▶ MUSIKA



## Ahots goxoak neguari abesteko


**Erredakzioa** ▶ Intimitate giroan entzun ahal izan zuten azken Gipuzkoako Kantu Txapelketako zenbait partaidek emandako kontzertua herenegun arratsaldean Amasako kultur etxean. Ia argirik gabe, neguari abestu zioten kantariak. Kanpoko giro hotzari aurre egin ahal izan zioten entzuleek, abeslarien ahots goxoekin. i.e.

**egunero opari bat...**

alabari, lagunari, izebari, aitonari...

**zuk nahi duzunari**

**oparitu**  
**HITZA**-ren  
harpidetza



Eskaera egiteko deitu

**902 82 02 01** telefono zenbakira

**iragarki laburrak ▶**

### ALOKERA

**Pisua.** Tolosan, estreinatze dagoen pisu berria alokatzen da. Telefono zenbakia: 943 69 74 37.

### SALGAI

**Autoa.** Ford Scort 1.800 TD. Matrikula: SS-BC. Interesatu daudenek ek deitu ondorengo telefono zenbakira 943 65 52 88.

### Loredenda.

Loredenda eskualdatzea Lasarten: 30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Interesatuak deitu 943 36 75 75/626 50 56 89 telefono zenbakietara.

### LANA

**Harreragileak.** Erakunde publikoetarako. Interesatuak deitu

ondorengo 943 44 48 66 telefono zenbakira.  
**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. Deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

### EROSTEKO

**Artoa aletzeko makina.** Artoa aletzeko makina bat erosiko nuke. Deitu 662 34 89 36ra.

JESUS BEGUE ▶ KOMUNISTA

# «Bi osaba alde banatan aritu ziren Gerra Zibilean»

Langileen mugimenduan aritu da eta frankismoaren eragina jasan du; umetan bizitu zuen gerra

JOXEMI SAIZAR

Jesus Begue Sarasolak (Beasain 1931) berrogei urte inguru darama Tolosan bizitzen. CCOOn eta PCEn militatu izan du beti. Erretiratuta egon arren, sindikatuaren bileretan murgilduta jarraitzen du. Ehiza eta mendia izan ditu betiko zaletasunak. Gerra Zibila umea zela iritsi zitzaion eta gatazkaren eraginak inguruko senitarteko eta lagunarteko batzuk harrapatu zituen. Berak, gerra bera baino, gerraren ondorioak eta frankismoa jasan ditu gehiago bere bizitzan zehar. Etxean gerrari buruz («oso gutxi») kontaktu omen diote, eta gehiena «heldua izandakoan, urte asko pasatakoan».

## Familiatik al datorkizu militantzia komunista?

Ez. Amaren aldetik abertzaleak ziren, Beasaingoak. Aita Zintornikokoa (Nafarroa) zen, umetan etorri zen Beasaina bizitzera. Bere familiakoak politika ar-

loan ez ziren ezertan sartzen. Aitak CAFen egiten zuen lan eta ni hango eskolan izan nintzen ikasten 11 urte nituenetik 14 bete arte eta gero bertan aritu nintzen lanean. Orduan murgildu nintzen langile mugimenduan eta CCOOn afiliatu nintzen eta geroago PCEn.

## Zein oroimen duzu gerraz?

Gerra hasi zenean lau urte nituen, bost betetzeko. Anaia urte pare bat txikiagoa zen. Amaren baserrira joan ginela eta ia gerra osoa han pasatu genuela gogoratzen dut, Ezkia txiki baserrira, Beasainen bertan, Ordiziatik gertu. Familia osoa batera egoteagatik joan ginen hara eta gerra osoa han pasatu genuen. Bando nazionalako soldadu konpainia bat egon zen bertan eta mandion ametralladora montatu zuten. Zein ondo pasatzen nuen hari begira, nola biratzen zuten eta...! Ez dakit zenbat denbora pasatuko zuten han.

## Familiako inor joan al zen frontera?

Aita eta bere aldeko inor ez zen frontera joan. Erretiratuta egon zen egun batzuk, inork ez ikusteko eta gero itzuli egin zen. CAFen egiten zuen lan eta denak militarizatuta zeudenez, bonbak egiten zituzten lantokian. Paparrean bomba baten irudia eraman behar izaten zuten jendeak identifikatzeko.

## Eta amaren aldetik, abertzaleak izanda?

Bai, bi osaba alde banatan aritu ziren. Zaharrena, Rufino, frontera joan zen abertzaleekin. Batailoi batean aritu zen gerra osoan eta Santoñan (Kantabria) eta Puerto de Santa Marian (Cadiz) egon zen preso. Errusiar asko omen zeuden Puerton. Heriotz zigorra izan zuen, baina gero aske utzi zuten, Beasaingo karlista batzuei esker. Urte asko pasatu zituen. Pentsa, etorri zenean ez nuen ezagutzen. Osaba gazteena berri, hemen harrapatu zuten eta zoritxarreko alde naziona-



JOXEMI SAIZAR

lan egin behar izan zuen gerra. Teruel aldean ibili zen.

## Gerra ondoren etxera itzuli zirenean arazorik izan al zuten?

Bai, osaba gaztea adibidez, alde nazionalen aritu arren, jarraitua izan zen. Paper bat ateratzeko ez zuen baimena izaten eta horrela ibiltzen zen. Ehizera joan behar bazuen, adibidez, ez zioten arma baimena ematen. Gero baditut lehengusu batzuk gerran alde errepublikazalean aritu ondoren soldaduskara joan eta sei edo zortzi urte pasatu behar izan zutenak. 'Biberoiaren kinta' deitzen zioten.

## Gerra garaiaz zer gogoratzen duzu?

Lehen jaunartzea bitarte mojekin egoten ginen, karmeldarrekin, eta gero La Salleko fraileengana pasatu ginen. Gerra betean izan arren, dena euskaraz ikasten genuen. La Salleko Bruño argitaletxeko liburua zirela gogoratzen dut. Pena dut ez ditudalako gorde liburu haiek. Gero galdu egin nuen euskara, kalean eta lagunekin, dena debekatuta zegoen eta. Gurasoei ere beldurra ematen zuten. Hamaiika urte arte ikasi nuen La Sallen. Orduan ez ginen gerraz gogoratzen. Pilotan jolasten genuen, hankutsik, al-pargatak ez hausteagatik, eta besterik ez. Gero CAFeko esko-

lan aritu nintzen eta elektrikari ikasi nuen. Ofizialitateko lau urte egin bertan lanean eta gero Etxeberria fundizioetara joan nintzen. Zumarragara, dirua irabazi behar zelako familia aurrera ateratzeko. Bertan aritu naiz lanean erretiratu arte. Gogoratzen dudana beste gauza da nazionalak herriren bat hartzen zutenean Beasaingo musika banda ateratzen zela kalejiran musika jotzen eta nik etxeko balkoitik negar egiten nuen. Guk ez genuen festa bezala hartzen, beti osabengatik kezkatuta geunden.

## Fusilamenduz eta zerbaikt kontatu al dizute?

Beasainen batzuk izan zirela kontatu izan didate. Ugarte mediku baten aita hil zuten, besteak beste, politikaria izan gabe gainera. Errepublikan mantentzen goardia zibil batzuk geldira zirela ere kontatu didate. Hori dena urte asko pasatakoan kontatu didate etxean, heldua izanda. Oso gutxi kontatu digute etxean gerrari buruz.

## Gosea ezagutu al zenuten zuen etxean?

Ez dut gogoratzen. Benetan. Gure baserrian garia eta artoa nahikoa bazegoen. Agintariei 100 kilo hartu zenituela esan beharrean erdia esaten genien eta hala jateko bazegoen. Abastosekoek lur eremuak

neurtzen zituzten, handik zenbat atera zitekeen kalkulatu eta eskatzeko. Etortzen zirenean ganbaratik gari zakua hartu eta mendira eramaten aritzen ginen. Gezurretan ibili behar izaten genuen jan ahal izateko.

## Nola gogoratzen duzu lehen lehen langile mugimendua?

Lehen esan bezala, fabrikako giroak lagunduta hasi nintzen. Zumarragako istiluak, lehen grebak... ezagutu nituen. Arrasateko kooperatibak sortu zituen Arizmendiarrera apaiza etorri zen behin hitzaldia ematera Beasaingo zinemara, Sindicato Verticaleko enpresako ordezkariok antolatuta eta jendez bete zen zinema. Han hasi zen langile mugimendua. CAFen langileen ordezkariengoela, gehienak PCEkoak ginen. JOCEko —Juventud Obrera Catolica, Espainian JOAC zuen izena, Juventud Obrera de Accion Catolica— batzuk bazeuden eta gero horietako batzuk PCera pasatu ziren. CCOO zen orduan sindikatu bakarra. ELA eta UGT ez ziren ezagutzen.

## Eta sindikalgintzatik politikara egin zenuen jauzi.

1960 edo 1961ean sartuko nintzen PCEn, Jose Luis Lopez de la Calle eta horiekin batera. Lehen udal hauteskundeetan jada Tolosan nintzen eta PCEko zerrendan aurkeztu nintzen, Leon Mitxelena, Miguel Gonzalez, Gervasio Tolosa eta horiekin. Garai haietan 70-75 kide izatera iritsi ginen.

## Nola bizitu duzu frankismoa?

Dena debekatuta zegoen. Txikitoak hartzen ari zirela polizia sekreta ondoan zenuen. Mundu guztiak bazekien zein zen —gero ETAK hil zuen Donostian—, baina han zeudela adierazi behar izaten zuten. Behin egon naiz atxilotuta. Manifestazio batean egon ginen Ordizian eta hurrengo egunean, goizeko zazpitan, lanera joan behar nuen, atera deitu eta goardia zibil bikotea etorri zen berriekin joan behar nuela esanez. Bi gau edo pasatuko nituen, baina etxean ez zekiten ezer eta gaizki pasatu zuten.

## PCEko jende helduagoak zer kontatzen zuen gerrari buruz?

Nik ez dut jende asko ezagutu Tolosan. Modesto Martin eta Marcos Vitoria ezagutu nuen, baina gutxi. Alde errepublikazalean eta langileen batailloietan arituak ziren eta oso zigortuta itzuli ziren.

## OHARRA ▶

Elkarrizketa hau eta Gerra Zibilar buruzko sail honetako besteak gure webgunean ikus ditzakezu.

## EUSKARA

«Gerra betean izan arren, dena euskaraz ikasten genuen; gero galdu egin nuen debekatuta zegoen eta»

## GOSEA

«Gari zakua mendian ezkututzen genuen; gezurretan ibili behar izaten genuen jan ahal izateko»

## KOMUNISTAK

«PCEkoak alde errepublikazalean eta langileen batailloietan arituak ziren eta oso zigortuta itzuli ziren»

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko abenduaren 24a, igandea ▶ IV. urtea**

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **07** hotzena **04**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Tolosa.** 12:30ean Tolosako Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du Zerkausian.

**Tolosa.** Bihar, Eguberri egunean, urtero bezala, 11:00etako mezan Santa Mariako kaperak musika lan hauek joko ditu: Eduardo Mokoroaren *Pastoral* meza, Felipe Gorritiren *Eguberrietako Gradual* eta Eguberrietako beste hainbat pieza.

**Tolosa.** Amnistiaren Aldeko Mugimenduk deituta, preso eta iheslariekin bat eginez, manifestazioa egingo dute 18:45ean, Triangulo plazatik hasita.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Ana Jesus Ansorenaren zeramika koadro lanak daude ikusgai, jubilatuen tabernan, urtarrilaren 14ra arte.

**Tolosa.** Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 13a bitarte Tolosako Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Gazteboentzako *Colegas en el bosque* filma bihar, 17:00etan, eta 20:30ean, helduentzat, *El laberinto del fauno*. Etzi, 17:00etan, *Colegas en el bosque* eta 20:30ean, *El laberinto del fauno*, Leidor aretoan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112. 943 67 09 15.  
**Tolosa.** Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**Bihar**  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

**Etzi**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Zazpi urte, hamaika doinu

**TOLOSA ▶ Bonberenea sortu zela zazpi urte bete ziren atzo; ospatzeko kaleetan zehar jotzen aritu ziren, herriko hainbat txarangekin batuz**



Gazteboek ere parte hartu zuten atzoko txaranga erraldoian. N. URBIZU

**ERREDAKZIOA**

**T**olosako kaleak musikariz bete ziren atzo. Bonbereneak 7 urte bete zituen eta Tolosa inguruko txaranga guztiakin batera aritu ziren jotzen goiz osoan zehar eta baita arratsaldeko ordu batzuetan ere.

Bonbereneatik hasi ziren jotzen. Gabonetako Azoka Bereziari beste kolore bat emanez. Gazteenetatik hasita musikari helduenekin batera jo zituzten abestiak, Bonberenea Txaranga, Incansables, Iraunkorrek, Oria eta beste hainbat txarangatako musikariek parte hartuz. Bazkaria ere izan zen denentzat, Bonberenean bertan. Arratsaldean zehar ere girotu zituzten kaleak, eta hori bai, bazkaldu ostean, giroa alaia-goa nabari zen.

Hurrengo urtean 8 urte beteko dituztenean ere, ziurrenik kaleetan zehar ikusiko ditugu Bonbereneakoak, musikaz eta giroz blai, herritarrek festarako gonbita eginez.



Alde Zaharrean geldidunak egin zituzten jendearren harridurarako. N. URBIZU



Bonberenea Txarangaren ikurra eskuan gidatu zuten ibilbidea. N. U.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Amaia Olariaga Lasa (Ibarra).** Gaur 4 urte. Zorionak etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Ane.** Zortzi urte dituzu hogeita bostean. Zer jarruko ote du amonak postrean?



**URTE ASKOAN**  
**Maialen Nuñez Sagastibeltza (Ibarra).** Etzi 5 urte. 5 muzu potolo Xabier, aita bota eta amaren partetik printzesa.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
**agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...